


19
AM61

ezagutzen al duzu Donostia?

Landarbaso

Zanarbide (eta ez Zamal- bide) Oreretako auzotik, goi- rik, Frantsesillaga eta Oztazu- lueta baserriak pasa eta hego- aldera mendi luze moztaka bar agertzen da gure begien aurrean: Landarbaso (edo Landrabaso, gure baserritar jatorrek esaten duten bezala). Landarbaso Donostiako men- dia izan da beti historian zehar, dokumentu zaharrek «Landarbasoa» aipatzen dute zilegietako* mugetan. Donos- tiako propietate bezala beti. Landarbasoko barrendegian gaur egun hiru baserri daude zutik eta baserritarrekin: Lar- rratz, Astabizkar eta Landar- baso bera. Baziren laupabost geliago, gaur denak eroriak. Ez dirudi lurralde honetako baserriak oso zaharrak dire- nik, hala ere bada iritzi erro- mantiko bat Landarbaso errepublika independentea izan zela esaten zuena, alajai- na!. Kontatzen da Landarba- son bere inguruko herriek ez zutela agintzen, legeak berta- koek autolatzen zituztela, ez zirela soldadu joaten, ez zuela kanpoko inork jurisdikziorik bertan. Arkadia zoriontsu bat zela Landarbaso. Ai, egia balitz!

* Zilegiak: «Montes Fran- cos» espainieraz. Urumea haraneko herri-mendiak ziren. Donostia, Hernani eta Urnietari zegozkien. «Zilegi» dela bertako ondutasunak era- biltzea da izen honen esa- nahia.



LANDARBASOKO
ASTABIZKAR
BASERRIA ETA
IGOIN-MENDI-
OSPELEKO HEGIA.

Donostiako kantutegia



J.I. ANSORENAK proposatua

San Sebastian

Ardoak para gaitu
kantari bai
eta dantzari.
Ez gaituk,
inutilak.
egarri.
Hori segurki
gure kondizioak
beti tabernarako,
eskean gure finak

berdin beharko.
Ezin faltatu.
Kondizioak
guk onak ditugu.
Goizean joaten gera
tabernara eta
arratsean beranduan
etxera gero
joaten gera.

KOMENTARIOA: Joan Inazio Iztuetak (1767-1845) jasotako soinu zaharren arteko bat da. Soinu zahar hauetan danbolinteroak jotzen zuen domuaren gainean dantzariak salto, brinko eta muriskak konbinatu behar zituen inprobisatuz. Danbolin musikak baziren ere, beti hitzak jartzen zitzaizkien, dantzarien neurriak aise gogoratzeke.

Kanta berez nahikoa luzeagoa da, baina beti bide berekoa: ardoaren gorapamena. Ez dakigu zergatik deitzen zaion San Sebastian. Gure herrian asko dantzatzen zelako? Edo akaso donostiartek zi zutelako.

JOSU TELLABIDE